

TALAIAN

**Merkatariek euren legea inposatu dute**

Joan den astean egin zen europar goi-bilerak beste behin erakutsi zuen merkatuek (banku eta finantza erakunde handiek) euren legea inposatzen segitzen dutela. Herrien eta herritarren Europa behar lukeenak merkatarien Europa izaten jarraitzen du, politikari eta agintariak belauniko dituen Kapitalaren Europa, alegia. Europar Batasunari (EB) ate-danbatekoa eman dion Ingalaterrari, Alemaniak eta Frantziak egotzen diote Cityaren finantza interesak babestu nahi izatea. Baina Merkel eta Sarkozy filosofia bera ari dira inposatzen gainerako herrialdeei, merkatuen interesei mesede egitea, hau da, beren banku eta finantza erakunde handiei. Nola?

Merkozy-k lortu du EB osoan zero defizita inposatzea, lege maila emanez, eta zigor automatikoen politika martxan jartzea legea betetzen ez dutenentzat. Hala, Cameronek Cityaren atzean dituen interesak kritikatzan dituztenek, mesede egiten diete espekulatuzaileei. Euren politikak ez diete erantzuten, esaterako, eragiketa finantzarioei erasango liekeen Tobin Tasa gisako eskaera sozialei. Aberastasun handiei zergak ezartzea ez dago haien planen artean.

Murrizketa gordinak inposatuz defizit publikoa erasotzeak, enplegua sortzeko beste neurririk gabe, hondamendirak besterik ez garamatza. Defizit publikoa gutxitzeko modu bakarra ekonomikoki haztea da, eta merkatuek lider europarren eskutik inposaturiko muturreko austeritatea albo batean uztea. Horretarako, tributu sistemaren gehikortasuna handitu behar da, errenta altuenak eta ondasun handienak zergapetuz, iruzur fiskala jazarriz, enplegua sortzeko finantzazioa erraztuz eta hazkunderako beste eredu bat bilatuz. Bestelako bideak hartzea espekulatuzaileei mesede egitea da, merkatarietara mesede egitea.

Juan Mari Arregi



**Euskaltelen eta Azpeitiko Udalaren hitzarmena**

AZPEITIKO UDALARENA Euskal Herriko lehenengo adibidea da. Duela gutxi hitzarmena sinatu du Euskaltel telefono konpainiarekin. Udaleko telefono guztietan Euskalteletik jasotako ahozko dei eta sms mezu guztiak euskaraz baino ez dituzte jasoko. Lehenengo aldia da udal batek telefono konpainia batekin halako hitzarmena sinatzen duena. Dena den, Azpeitiko Udaleko Euskara zinegotziak garbi utzi du Euskaltelekin sinatutakoa garrantzitsua bada ere, alegia, telefonoak berak euskaraz egitea, are garrantzitsuagoa dela telefonoaren bestaldean dagoenari euskaraz egitea.

**Atoan! argitaletxea, euskaraz ikasten ari direnentzako**

ZENBAT GARA elkarte bilbotarrak sortu du Atoan! izeneko argitaletxea, eta *Euskara errazean* bilduma jarri du abian. Euskara ikasten ari direnei modu ulerterrazean idatzitako liburuak eskaintzea da asmoa. Iru-diak eta argazkiak baliatuko dituzte horretarako, testu osagarriak erabiliko dituzte eta hiztegi lagungarria ere izango dute liburuek. Oraingoz lau liburu argitaratu dira: *Ebuneko ebun*, *Hego Itsasoetako ipuinak*, *Lurtarrak* eta *Maggie, kaleko neska bat*.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)



# Kulturguneak eta krisia

## ziklo ekonomiko berriak eredu jasangarriak eskatzen ditu

datorren astean